



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

HIRU NEXUS 6 SAKELAKO TELEFONO IRABAZTEKO ZOZKETAREN OINARRIAK

1. ZOZKETAREN HELBURUA

BGPk zozketa bat egingo du Barik Kargatu izeneko proiektuan NFC sakelako telefonoarekin parte hartu duten pertsonen artean; horretarako, oinarri hauek beteko ditu. Beraz, lagundu izana eskertzeko asmoz, partaideen artean 3 sari banatuko dira.

2. PARTAIDEAK

Zozketan parte hartu ahal izango dute Barik Kargatu izeneko proiektuan NFC sakelako telefonoarekin parte hartzeko izena eman eta, gero, parte hartu duten pertsona guztiek, baldin eta gutxienez hiru aldiz kargatu badute txartela (zuria, gorria, argazkiduna edo argazki gabea); berdin da zein billetearekin kargatu duten txartela.

Ezin dute parte hartu BGPko langileek, edo haien zuzeneko senideek.

Barik Kargatu izeneko proiektuan NFC sakelako telefonoarekin parte hartuz gero berariaz onartzen dira zozketa honen oinarriak.

3. SARIA

Lehiaketaren saria Nexus 6 markako sakelako telefono bat da. Telefonoak 500€-ko balioa du, eta zozketako irabazleetako bakoitzak bat jasoko du.

Dena den, BGPk saria aldatzeko eskubidea izango du. Hau da, saria banatu behar denean telefono hori ez badu edo stock-ean falta bada, antzeko ezaugarriak eta balioa dituen bat oparituko du.

Saria besterenezina da, eta ezin da inola ere aldatu eskudiruagatik edo beste produktu/zerbitzu mota bategatik.

4. ZOZKETA

Zozketa BGPren bulegoetan egingo da, fede-emaile publiko baten aurrean, proiektu pilotua amaitu eta hurrengo astean. Baina zozketaren eguna jakinaraziko da.

5. SARIAREN ORDAINKETA

Zozketa irabazi dutenen nortasuna egiaztatu behar da; pertsona hauek NANA, pasaportea edo haien nortasuna egiaztatzeko frogagiria (agintari eskudun batek emana) aurkeztu behar dute.

BGP irabazleekin harremanetan jarriko da, telefonoz edo helbide elektroniko baten bidez, zozketa irabazi dutela jakinarazteko. 48 ordu igaro ostean irabazleak ez badu oraindik erantzun, edo irabazleak sariari uko egin badio, BGPk zozketa berria egingo du. Baina berriz gauza bera gertatuko



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

balitz, eta orain ere irabazlearekin harremanetan jarri ezingo balu, saria hutsik geratuko litzateke. BGPk bere webgunean argitaratuko ditu irabazleen izenak.

Zozketa honi lotutako zerga-betebeharrak, halakorik balego, dagokionak hartu beharko ditu bere gain, kasu honetan aplikatu behar den legeria betez.

Sariak BGPren bulegoetan emango dira, aurrez jakinaraziko den egunean. Sariak ematean argazki bat aterako da, gero BGPk egokitzat jotzen dituen hedabideetan zabaltzeko.

6. DATU PERTSONALEN ERABILERA

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazi behar dizugu zure datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horren titularra eta arduraduna BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA da (Ugasko kalea, 5 bis, 1. esk. - 48014, Bilbo – Bizkaia) eta, horren bidez, kontakturik gabeko Barik txartela duten eta horrela erregistratuta edo egiaztatuta dauden erabiltzaileen txartela kudeatu nahi da. Zure datu pertsonalak arestian azaldu xederako erabiltzeko eta jakinarazteko baimena ematen duzu. Dena den, legeak xedatu bezala, nahi duzunean balia ditzakezu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOran joz (adierazitako helbidean).

7. NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEA ERABILTZEKO BAIMENA

Irabazleak BGPri baimena ematen dio bere izena, abizenak, helbidea eta irudia erabiltzeko eta zabaltzeko sustapen honekin lotuta dauden publizitate eta/edo sustapen jardueretan. Erabilera eta zabalkundea edozein modutan egin daiteke. Gainera, jarduera horiek ez diete inolako ordainsaririk edo mozkinik eskuratzeko eskubiderik emango irabazleei; soilik jasoko dute oinarri hauen arabera irabazi duten saria. Baimena ematen da, beraz, hartu diren grabazio edo irudi guztiak kopiatzeko, aldatzeko, banatzeko eta komunikatzeko, edonoiz eta edozein lurraldetan.

8. ZOZKETA ALDATZEA, ETETEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

BGPk zozketa aldatu, eten edo bertan behera utzi dezake behar bezala, justifikatutako arrazoiak direla medio. Kasu horretan, BGPk ez du inolako erantzukizunik izango.

9. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA.

Zozketa honen oinarriek Espainiako Legea dute aginduzko. Partaideek berariaz egiten diete uko dagozkien foruei, eta Bilboko Epaitegien eta Auzitegien menpean jartzen dira, gerta daitezkeen eztabaidak ebazteari dagokionez.